



haur-etxea

Nidos familiares para el cuidado infantil
Familia-habiak haurren zainketarako



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GIZARTE
GAIETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y ASUNTOS SOCIALES



Haurtxoak zaintzeko alternatiba



Haur-etxea haurrek zaintzeko zerbitzu berria da; **3-4 haurtxoko talde murriztuetan** garatzen da familia baten ardurapean.

Europako herrialde askotan eta zenbait autonomia-erkidegotan indarrean dagoen zerbitzu bat da.

Zaintzaileak bere etxean eskaintzen du Haur-Etxea zerbitzua.

Hala, etxea familia-habia bihurtzen da, haurtxoen harrera eta zaintetarako bereziki **egokitua eta hornitua**.

Komunitatearentzako onurak

- Haur-etxea zerbitzua **III. Familia Planaren barnean hartutako neurrietako** bat da.



- **Familia sustatzeko eta familia eta lana uztartzeko** zerbitzu eta programen eskaintza hobetzen du.
- **Haurren arretari** eta gertuko zaintetari **balioa** ematen die.
- Haurrak zaintzeko sare bat sustatzen du **komunitate-ikuspegi** batetik.

Profesionalak eta konfiantzazkoak

Zaintzaile guztiak profesionalak dira eta **prestakuntza espezifiko** jaso dute, etxean familia-habiaren zerbitzua eskain dezaketen zaintzaileak direla **egiaztatzen duena**.

Haur eta familien eremuan espezializatutako **Agintzari** gizarte-ekimeneko erakundearen **lankidetzaproiektuaren** parte dira, eta **gainbegiratze pedagogikoa** jasotzen dute.



Familiei egokitua

✓ Haur-etxeak arreta-**ordutegi** malgua dauka. Familia-habia bakoitzak eguneko orduetan eskaintzen du zerbitzua, lau ordutik zortzi ordura bitarte, familien premien arabera.

✓ Astelehenetik ostiralera egoten da **zabalik**, urteko hilabete guztietan. Haur-etxearen zerbitzuak lagungarri izan nahi du familien uztartze-premiei erantzuteko.

✓ Haur-etxea zerbitzuko kideon ustetan, haurtxo bakoitzak bere **dieta pertsonalizatua** eduki behar du, eta horregatik familia bakoitzak egokitzat jotzen duen elikadura ematen dio haurtxoari.

✓ **Elkarri lotutako familiak**. Haur-etxea zerbitzuko taldekideen eta familien arteko harremana gertutasunean, konfiantzan eta etengabeko komunikazioan oinarritzen da.



Zerbitzua abian jartzeko • aurreikuspenak


2011. Saiakuntza-proiektu pilotua

- 2011ean 5 familia-habia zabalduko dira Bizkaiko hirigune nagusietan.
- Esperientzia ebaluatuko da.

2012. Saiakuntza-proiektu pilotua

- Proiektu pilotua Gipuzkoan eta Araban jarriko da abian.
- Erreferentziazko arauak garatuko dira.

- Zerbitzuari buruzko informazio eta eskabideetarako:



638 758 966 /
620 82 43 40
944 757 005

nidos@agintzari.com

www.euskadi.net/hauretxea